

Errebolberra, Galand sistema, damaskinatua

Jatorrizko herrialdea	Belgika
Pieza-mota	Errebolberra, Galand sistema (Belgika)
Fabrikatzailea	Ezezaguna Eibarko Teodoro Ybarzabal grabatu- eta damaskinatu-lantegiak dekoratua 1883 inguruan
Non egina	Ezezaguna
Modeloa	Galand sakelakoa.
Serie-zenbakia	Serie-zenbakirik gabe.
Kalibrea	7 x 13 R Galand Short. (Perkusio zentrala)
Tiro egiteko sistema	Ekintza bikuna. Tiragailu tolesgarria.
Funtzionamendu-sistema	Irekieran lekualdatze lineala duen zilindroa eta bala-zorroen erauzte automatikoa. Danborra eskuinerantz biratuz higitzen da.
Kargatzeko modua	Eskuzkoa. Palanka bat lekualdatuz irekitzen da. Palankak aurrerantz bultzatzen du higidura zuzenaz kanoiak eta danborrak osatutako multzoa, eta aktibatut egiten du disparatutako bala-zorroak automatikoki erauzteko gailua. Hala, errebolberra prest gelditzen da berriro kargatzeko. 6 tiroko danborra.
Segurtagailu-mota	Segurtagailurik gabe
Kanoiaren luzera	76 mm
Luzera osoa	180 mm
Pisua, deskargatuta	450 g
Kirten-azal mota	Zurezkoak, karratuxodunak eta torloju batez eutsiak.

Iruzkina	<p>Galand sistemako errebolberrek Liejan (Belgika) diseinatu eta patentatu zituzten 1868an Charles-François Galand (1832-1900) frantses armaginarik eta Andrew Sommerville britainiarrek.</p> <p>Bala-zorroak erauzteko mekanismo burutsu bat dute, bala-zorro hutsak eta danborrean sartuta dauden baina tiro egin gabe aktibo dauden kartutxoak bereizten dituen.</p> <p>1870ean, bazkidea hil zitzaionean, F. Galand Parisen kokatu zen, eta 1872an, bere jatorrizko errebolberraren modelo hobetua patentatu zuen, “Revolvers Galand á Extracteur Automatique” izenarekin.</p> <p>Espanian, dirudienez, ez zen fabrikatu errebolber-mota hori, baina badira ale batzuk Amado Barthelet Durangon eta Eibarren kokatutako belgikar industrialariaren puntzoiarekin markatuak, eta badira, halaber, Soroluzeko “Fábrica de Armas Euskalduna” marka dutenak. Litekeena da ale horiek amaitu gabe inportatuak izatea, gero lantegi horietan akabera emateko.</p> <p>Baliteke fitxa honetako errebolberra haietako bat izatea; trebeki grabatua eta damaskinatua dago Teodoro Ybarzabalen lantegian, Eibarren. Pieza hau</p>
-----------------	--

	haren alabek eman zioten Eibarko Armeria Eskolari 1914an.
--	--

02782